

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren kargua betetzeko deialdia

Botere judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek eta 3/1995 Erregelamenduaren 4. eta 5. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titular eta ordezko karguak beteko dituzten pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola, ezarritako epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Interesdunek udalaren idazkaritzan aurkeztu beharko dute eskaera, idatziz, hamabost egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio eskaerari:

a) NANaren fotokopia.

b) Erantzukizunpeko aitorten bat, honako alderdi hauek jasoko dituena:

– Ez dela doluzko delituagatik kondenatua izan edo, hala badagokio, birgaitzea lortu duela.

– Ez dagoela doluzko delituagatik prozesatuta edo inputatuta.

– Eskubide zibil guztien jabe dela.

– Espainiarra eta adinduna dela, ez dagoela ezgaituta fisiko edo psikikoki eginkizun judizialerako eta herri honetan biziko dela, salbu eta Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak baimena ematen badu.

– Botere judizialaren Lege Organikoak 389. artikulutik 397. artikulura bitartean ezarritako ezintasun, ezgaitasun edo debekuren bat ez izatea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lagran, 2020ko otsailaren 24a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ